



Arbilgo bazarreko merkatari kurdua.

## Samer S. Hassanen kronikak

# Bagdaden hasi eta amaitu den ihesaldi zapuztua

Pasa den martxoan, Irakeko inbasioaren lau urte bete zirenean, kronika bat jaso genuen Bagdadeko hiritar baten eskutik. Samer S. Hassan gerraren kaosaren erdian bizitzeaz mintzo zen, eta “ihesa amets” hitzekin bukatu zuen kronika gordin hura. Oraingo honetan dioenez, Iraketik alde egiteko ametsa gero eta eskurazinago bihurtzen ari da.

**SAMER S. HASSAN**

Argazkiak: Karlos Zurutuza

**MARTXOAREN 18AN** nire lankide bat hilik azaldu zen lantegi ondoko kale batean. Bere delitua, sunita izatea auzo xiita batean. Hamidek bi egun zeramatzan lanera etorri gabe eta bere hilketak ez gintuen ezustean harrapatu. Handik bi egunera, Khalid beste lankide baten gorpua aurkitu zuen poliziak; Hamid azaldutako kale berean, hain justu. Oraingoan, biktima xiita zen, eta borreroak, mendeku bila zebiltzan sunitak. Katua eta saguaren joko amaigabea da hau, baina rolak etengabe trukatu. Honi “biolentzia sektarioa” deritzo orain.

Gauzak horrela, lana utzi eta Kurdistanera jotzea erabaki nuen, herrialdeko eskualde seguruena baita hori. Irakeko errepideetan



Hassan 26 urteko xiita bagdadarrek bere esperientziak kontatu zituen ARGIAN, 2081. zenbakian.

zehar bidaiatzea gero eta arriskitsuagoa denez, Bagdadetik Sulaimanijara hegan egitea erabaki nuen. 100 dolar ordaindu nituen joaneko txartelagatik, baina tira, ondo inbertituta-ko dirua zela uste nuen orduan.

### “Ez da zure herrialdea”

Sulaimanijako aireportura iristean pasaportearekin eskatu zidan aduanako segurtasun ofizialak. Nire herrialdean barrena bidaiatzen ari nintzelakoan nengoen, eta halaxe adierazi nion unifornedunari. “Hau ez da zure herrialdea”, erantzun zidan, aireportuan zegoen bandera bakarra seinalatuz; bandera kurdua, noski.

Nirekin etorritako gainontzeko bidaiariek ere



Goiko irudian, AEBetako "Humvie" auto blindatu bat, Kurdistango Arbil hirian. Eskuineko irudian, Irakeko mapa.



ez zekiten pasaporte beharrezkoa zenik, eta han eman genituen denok lau bat ordu, haserre batzuk eta etsita besteak. Azkenean, goi-mailako beste ofizial bat inguratu zen, atea ireki eta, zorionez, Kurdistanen sartu ginen denak. "Zorte txarra izan duzue guardia horrekin. Dena den, ez ahaztu pasaporte hurrengoan", azaldu zigun.

Hamar egun pasa nituen Sulaimanijan lan bila, baina ez nuen deus ere aurkitu. Bestalde, Kurdistanen gelditzeko erresidentzia-baimena ezinbestekoa zela jakinarazi zidaten Inmigrazio Sailean, eta hori lortzea lana aurkitzea baino askoz zailagoa zela konturatu nintzen. Hasteko, nire biziak Bagdadaren arriskuan dagoela baieztatzen duen agiri ofizial bat behar nuen. Ez nekien horrelakorik existitzen zenik, eta inmigrazio funtzionarioak ere ez zekien zeinek sinatu behar zuten. Bigarren baldintza Sulaimanijako hiritar baten gomendatze gutuna zen: "Sulaimanijako norbait izan behar du, ez Dahuk, Arbil edo Kirkukeko (hiri kurduak denak) hiritarra", errepikatu zidan funtzionario berak. Kurdistango eskualdea bertako bi alderdi nagusien kontrolpean dago: Massud Barzani Kurdistango presidentearen PDK alderdiak eskualdeko ipar-mendebaldea kontrolatzen du. Aldiz, Jalal Talabaniaren UPKa Kurdistango hego-ekialdean da nagusi. Sulaimanija da azken honetako hiri nagusia. Bi liderren arteko lehia antzinatik dator, hortik elkarrenganako mesfidantza eta desadostasuna. Gauza jakina da Kurdistanez independentzia inoiz lortzen badu, gerra zibila jasango duela segidan. Ekialde Hurbileko gaitz endemikoa da hau; Irak edo Palestina ikusi besterik ez dago.

Askoz ere baldintza gehiago zeuden erresidentzia baimena lortzeko, baina lehendabiziko biak gaindiezinak suertatu zitzaizkidan eta egitasmoa bertan behera utzi nuen. Ziur nago Suedia, Frantzia edota Europako beste edozein

**“Europako atea ireki behar zizkidan 600 dolarreko pasaporte berriak ez du Jordaniako zigilua bera ere jaso”**

herrialdetan gelditzeko oztopo gutxiago jarriko zizkidatela.

### Buelta Bagdadera

Bagdadera bueltatu nintzenean, Jordanian bizi den izebak telefonoz deitu zidan. Nonbait, Europako hainbat enbaxada bisak luzatzen ari omen zen irakiar errefuxiatuentzat. Maiatzean indarrean jarri den G pasaporte berria ezinbestekoa omen da tramiteak egiten hasteko, eta 600 dolar ordaindu behar izan ditut agiri berriagatik. Iraketik inoiz alde egitea ahalbidetzen badit, benetan merkea irudituko zait. Baina Jordanian, Ammango nazioarteko aireportura iritsi bezain laster, aduanako poliziek ni eta nirekin zetozen 23 irakiarrek atxilotu, gaua aireportuan pasatzen behartu eta Bagdaderako goizeko lehenengo hegaldian sartu gintuzten. Europako atea ireki behar zizkidan 600 dolarreko pasaporte berriak ez du Jordaniako zigilua bera ere jaso.

Eta Bagdadaren nago oraindik. Atzo nire etxetik gertuko tunela lehertu zuten, jende eta segurtasun tropen garraiorako oso garrantzitsua den errepidea moztuz. Susmoa dugu Bagdadeko komunikazio mapa birmarrazten ari direla, ekintza militar bat prestatzeko asmoz, ziurrenik.

Saddamen garaian ohiko ekintzak ziren horiek. Egun, ordea, ezin jakin norik jarri duen nire etxeko leiho guztiak txikitu dituen lehergailua: insurgentzia sunitak? Al Mahdiren milizia xiitak? AEBetako tropek? Egia esan, bost axola zait, galdera bakarra baitarabilkit buruan orain: nola irten hemendik? ■

<http://www.argaia.com/argaia-astekaria/2081/bagdad-1460-gaueko-amesgaiztoa> helbidean, Samer S. Hassanen lehenengo kronika.